



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 23a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina ematekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Erorien omenezko Monumentua” deiturikoren kriptan 1936ko altxamenduarekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijiosoa nahiz beste edozein motatakoa. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dagoela. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egiturari, antolamenduari, funtzionamenduari eta finantzaketari dagokienez. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzak ezar ditzan Castejonen, DBHI berri bat eraiki dezan eta egungo ikastetxearen instalazioak hobetu ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur pobreziaren prebentzio eta kontrolerako sistema bat ezar dezan Nafarroako ikastetxeetan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, ingurumen-zarataren arloko EEE zuzentarauaren aplikazioari dagokionez Europako Parlamentuko Eskarietarako Batzordeak eskatutako informazioari buruzkoa. Maite Esporrín Las Heras andreak egin du (8. or.).

- Galdera, gobernu berria eratu bitartean CRANaren figura juridikoa mantentzeko buruzkoa. M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak egin du (9. or.).
- Galdera, C hepatitiserako antibiral berrien bidezko tratamendua Nafarroan horren premia duten pertsona guztiei bermatzeko bitarteko eta baliabideei buruzkoa. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa Negoziatzeko Batzordean parlamentu-talde guztietako ordezkariak parte hartzeko buruzkoa. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, ingurumen-inpaktuaren adierazpen berri bat egin beharra ekidite aldera ingurumen-inpaktuari buruzko proiektu bat ebazpen bidez balioztatzei buruzkoa. Víctor Rubio Martínez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eta Tafallako Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzei dagokionez Tafallako Udalak onetsitako ebazpenari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik ez den kontusailik jaso 2013ko, 2014ko eta 2015eko aurrekontuetan 189. jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihesbidea –NA-132–. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Museoak igandeetan bi solairu ixteko arrazoiei buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (13. or.).
- Galdera, C hepatitis daukaten gaixo nafarrei buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentari María del Mar Lete Martínez andrea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldean sartzea (15. or.).
- 2014. urtean zehar foru parlamentariari emandako ordainsariak (15. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 1/2015 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (17. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina ematekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Foru Lege proposamena. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publi-

koek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik hamabost egun baliouduneko epe bat hasiko da, **2015eko otsailaren 16ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Erorien omenezko Monumentua” deiturikoaren kriptan 1936ko altxamenduarekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijiosoa nahiz beste edozein motatakoa.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Erorien omenezko Monumentua” deiturikoaren kriptan 1936ko altxamenduarekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijiosoa nahiz beste edozein motatakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ikusita behin eta berriro urratzen dela legedi indarduna (52/2007 Legea, abenduaren 26koa, zeinaren bidez gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen diren eta horien aldeko

neurriak ezartzen diren; 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa; eta Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Legea), gure kezka adierazi nahi dugu, zenbait erakundek eta artzapezpikutzak Memoria Historikoa dela-eta erakutsitako erantzukizun demokratiko ezagatik.

Agerikoa da Nafarroan frankismoaren apologia eta gorespina egiten jarraitzen dela. Apologia horrek erregimen frankistaren eta bere arduradunen inpunitatea dakartzkigu gogora. Gauza gehiegi gertatu dira, demokrazia eta Errepublikako Gobernu zilegia defendatu zutenek, eta haien oinordekoek, oraindik jasaten jarraitu behar izateko kolpistak eta hiltzaileak goraiatzat dituzten sinboloak eta jarrerak bizitza publikoan egotearen inposizioa.

“Hermandad de Caballeros de la Cruz” izenekoak kolpe militarra goresteko ekitaldiak egiten ditu Erorien Omenezko Monumentuaren kriptan. Zehazki, uztailaren 19arekin hileta bat egiten dute urtero, altxamendu kolpista ospatzeko eta bertan hilobiratutakoen omenez; besteak beste, Sanjurjo eta Mola jeneralen omenez. Omenaldi hori altxamendu militarren apologiaren adibide garbia da, eta laidoa 3.500dik gora eraildakoentzat, beren senitartekoentzat eta Nafarroako herritar gehienentzat, zeinek zeharo arbuatzen baitituzte monumentu horretan nahiz ekitaldi horietan gores-tzen diren balioak.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkeztzen dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erorien omenezko Monumen-

tua deiturikoaren kriptan 1936ko altxamendu kolpistarekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijioso nahiz beste edozein motatakoa. Zehazki, "Hermandad de la Cruz" izenekoak ez dezan kriptan erabil, aipatua bezalako ospakizunak egiten jarraitzen duen bitartean.

- Nafarroako Parlamentuak kasuko administrazioa premiatzen du agin dezan kriptan horretan dautzan aipatu jeneralen gozpuzkiak egokitzen josten den toki pribatura eramateko.

- Nafarroako Parlamentuak Artzapezpikutzan premiatzen du kriptan horretan altxamendu militarren aipamen espresa egiten duten kontsigna, grabatu eta grafiko guztiak ken ditzan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez, Juan Carlos Longás García, Txema Mauleón Echeverría eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dagoela.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, urgentziazko izapidea baliatuz Sustapen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

AENA burtsara irten hurren dago, eta gizarte zibilari nahiz horrek erakundeetan dituen ordezkari dagokie ahalegin guztiak egitea aireportuen pribatizazio hori burutu ez dadin.

Espainiako Gobernuak, bere gehiengo osoa baliatuz, burtsara atera nahi du AENAREN % 49; hartara, aireportuen pribatizazioa hasiko da. Gogorarazi beharra dago titulartasun publikoko

aireportu-sare hori funts publikoekin ehundu dela; beraz, pribatizatu gabe gelditzen den azken zerbitzu handia dela esan genezake.

Komunikazioen eta garraioen sektorea sektore estrategiko bat da gizarte orotan; horrenbestez, kontrol publiko bat eduki behar du, gutxieneko eskubide demokratiko batzuk, aukera-berdintasuna eta interes orokorra ziurtatze aldera.

Kasu honetan, Estatuko Barne Produktu Gordinaren % 10 inguru dago sektore horren mende; hots, finantza-espekulatzailen esku buka dezakeen sektore garrantzitsu bati buruz ari gara.

Horri guztiari gehitu behar zaio AENAREN zuzendaritzak eta Estatuko Gobernuak nahiz Alderdi Popularrak nola garatu duten burtsara irteteko ahalegina errazteko prozesu guztia; izan ere, debaluazio eta segregazio etengabeek bide hori lautu besterik ez dute egin.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dago, gure ustez publiko izaten jarraitu beharko lukeen sektore estrategiko bat pribatizatzea delako.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du ez dezan aitzinera eraman aireportuen sektorea pribatizatzea ekar dezakeen inolako ekimenik, eta bide horretan egin dituen balizko urratsak atzera eraman ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Noingo aireportuko langileei nahiz gainontzeko aireportuetakoei, eta babestu egiten

ditu sektore publikoaren alde egiten dituzten balizko mobilizazioak.

4. Erabaki proposamen hau Estatuko Gobernuari igorriko zaio.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Juan Carlos Longás García

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egiturari, antolamenduari, funtzionamenduari eta finantzaketari dagokienez.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egiturari, antolamenduari, funtzionamenduari eta finantzaketari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Tuterako kontserbatorioaren etorkizunak kolan jarraitzen du. Nafarroako Gobernuak kontserbatorioaren jardunerako diru-laguntzaren % 25 erretiratu zuenetik, orain arte ezarri diren soluzioak koiunturazko neurriak besterik ez dira, nahiz

eta egia den finantzaketa-arazoaren parte bat konpontzeko balio izan dutela.

Kontua da ikastetxe hori sortu zenez geroztik Nafarroako Gobernuak ez diola bere erantzukizunari aurre egin Tuteran musika-irakaskuntzak garatzeari dagokionez; hau da, musika-irakaskuntzen funtzionamenduari, egiturari, antolamenduari eta finantzaketari dagokienez.

Une honetan, irakaskuntza horiek Nafarroako Gobernuaren eta Tuterako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmen baten jarraipen-batzordearen mende daude, eta horrek ez du konponbide egonkorrik jasotzen. Alegia, ez da ezagutzen zer baldintzatan hasiko den datorren ikasturtea, ezta hasiko den ere.

Egoera horri gehitzen zaio baliabide materialik ez daukatela, eta horrek, zalantzarik gabe, eragin negatiboa dauka hezkuntza-jardunean.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egitura, antolamendua, funtzionamendua eta finantzaketa zehazteari dagokionez, halako moduan non 2015-2016 ikasturteetik aitzina ziurtatuta egonen baitira Nafarroako Erriberan musika-irakaskuntzen egonkortasuna, jarraitutasuna eta garapena, bai eta herritarrek horiek eskuragarri izatea ere.

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzak ezar ditzan Castejonen, DBHI berri bat eraiki dezan eta egungo ikastetxearen instalazioak hobetu ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzak ezar ditzan Castejonen, DBHI berri bat eraiki dezan eta egungo ikastetxearen instalazioak hobetu ditzan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu eta konpartitzen ditu Castejongo hezkuntza-erkidego osoaren aldarrikapenak, zeinak baitira herri horretan DBHko bigarren zikloa ezartzea, Castejonen DBHko ikastetxe berri bat egitea eta egungo instalazioak hobetzea, ikastetxe berria erabili ahal izan arte.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejonen arian-arian ezar daitezten, maiatzaren 24ko 12/2001 Foru

Legearen babesean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko ikasketak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen eraiki dezan eraikin publiko bat, Castejonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak kalitate-irizpideekin bat eman ahal izateko behar diren gelak eta instalazioak dituena.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejonen DBHko lehen zikloko ikasketak ematen diren gaur egungo ikastetxeko instalazioak egokitu ditzan eta ikastetxea beharrezkoa den materialaz horni dezan, ikastetxe berria eraiki bitartean, eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeko zuzendaritza babestu eta erraztasunak eman diezazkion Castejongo DBHko hezkuntza-erkidegoak erabiltzen dituen espazioen konponketa eta mantentze-lanei buruzko zuzemenetarako.”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur pobrezia-aren prebentzio eta kontrolerako sistema bat ezar dezan Nafarroako ikastetxeetan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur pobrezia-aren prebentzio eta kontrolerako sistema bat ezar dezan Nafarroako ikastetxeetan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du haurren pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezar dezan ikastetxeetan, haiekin batera lan eginda, irakasleek eginitako inkesta anonimoen bitartez, non galdetuko baita zenbat hurrek gosaltzen duten egunero, ikasle bakoitzari buruzko jarraipen bat eginez pobrezia jasaten duten adingabeen egoerak detektatze aldera.”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, ingurumen-zarataren arloko EEE zuzentarauaren aplikazioari dagokionez Europako Parlamentuko Eskarietarako Batzordeak eskatutako informazioari buruzkoa.**MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, ingurumen-zarataren arloko EEE zuzentarauaren aplikazioari dagokionez Europako Parlamentuko Eskarietarako Batzordeak eskatutako informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak kasuko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Guztiok dakigu azken urteotan arazo bat dagoela Iruñeko Alde Zaharreko zenbait lekutan, tabernak eta ostalaritzako establezimenduak ugaltu izanak eragindako eragozpenengatik. Hori dela-eta, Alde Zaharreko bizilagun asko elkartu egin dira, jada ordena publikoko arazo moduan ikusten

baitute auzia, eta ekintza ugari abiarazi dituzte, agintariek neurri gokiak har ditzaten.

Bizilagun askok uste dute ostalaritzako lokalen saturazioa beren osasuna kaltetzen ari dela, baina baita Alde Zaharraren osasun publiko eta soziala ere.

Zarata, gaueko eragozpenak, jendetza goizeko ordu txikiak arte ibiltzea, parranda-gauen osteko zabor-pilaketa eta txikizikoak kalte sozial handia eragiten ari dira ostalaritzako establezimenduz mukurru dauden kaleetan.

Kexu horiek Europar Batzorderaino heldu ziren, eta honako erantzun hau jaso dute:

“Europako Parlamentuko Eskarietarako Batzordeko Lehendakariak 2014ko azaroaren 13an erantzun bat igorri dio Iruñeko Alde Zaharreko bizilagun batek egindako eskariari (2396/2013), zeinean adierazten baita batzorde horrek Nafarroako Gobernuari informazioa eskatuko diola 2001/49/EE zuzentarauaren aplikazioari buruz”

Hartara, honako galdera hau egin dut, kasuko batzordean ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak eman al du ingurumen-zarataren arloko EEE zuzentarauaren aplikazioari dagokionez Europako Parlamentuko Eskarietarako Batzordeak eskatutako informazioa? Baiezkoan, zein izan da Nafarroako Gobernuaren erantzuna?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, gobernu berria eratu bitartean CRANaren figura juridikoa mantentzeari buruzkoa.

M.^a DEL CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a del Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gobernu berria eratu bitartean CRANaren figura juridikoa mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Mari Carmen Ochoa Canela andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

2015eko urtarrilaren 13an, Parlamentu honetako Landa Garapeneko Batzordeak mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena CRANA mantentzea eta inongo erabakirik ez zezan har CRANA Fundazioaren behin betiko deuseztatzea zekarrenik, 2015eko foru hauteskun-

deetatik sortzen den Gobernuak askatasuna izan dezan erabaki hori hartzeko eta Gobernu horrexek erabaki dezan Nafarroak etorkizunik eduki ote dezakeen jasagarritasunaren arloko politikarik gabe eta politika horretarako behar diren baliabideak jarri gabe; izan ere, Parlamentuak uste zuen baliabide horiexen artean CRANA funtsezko zutabe litzatekeela.

Azken egunotan jakinarazi zaigu CRANako azken lau teknikariak kaleratuko dituztela otsailaren 3an.

Langileek beraiek adierazten zutenez, CRANaren erabateko desagerpenaren aurrean gaude, eta ez departamentuak ez sozietate publikoek ez dute beren gain hartu ez haren teknikaririk ez Nafarroako Gobernuak berregituraketa iragarri zuenean haiak betetzen ari ziren eginkizunik. Eki-men asko eta asko abiarazi ditugu CRANAK gure erkidegoan egin duen funtsezkoa lana eta horren garrantzia balioan jartzeko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek honako galdera hau egin nahi du:

- CRANaren figura juridikoa mantenduko al da harik eta Gobernu berria eratu arte, urtarrilaren 13an talde guztiek –UPN barne– onetsitako mozioan eskatzen zen moduan?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Ochoa Canela

Galdera, C hepatitiserako antibiral berrien bidezko tratamendua Nafarroan horren premia duten pertsona guztiei bermatzeko bitarteko eta baliabideei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, C hepatitiserako antibiral berrien bidezko tratamendua Nafarroan horren premia duten pertsona guztiei bermatzeko bitarteko eta baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gizartean badago kezka bat, C hepatitis daukaten pertsonak medikamentu berri batekin sendatzeko aukeraren aurrean Osasun Departamentuak adierazitako jarrera dela-eta.

C hepatitis daukaten gaixoei eta kolektiboek itxialdia egin dute eta erantzun argi bat eta konpromiso bat eskatu diote Osasuneko kontseilariari, gaixotasun hori daukaten pertsonak beren egoerarako egokiagoa den tratamendu bat eskuratzeari dagokionez, kasu askotan sendatzea ekar bailezake.

Premiazkoa da konpromiso bat eta erantzun argi bat ematea eta egoera okerrean dauden pertsonen tratamendu berri hori urgentziaz aplikatzea.

Galdera:

Osasun Departamentuak C hepatitiserako antibiral berrien bidezko tratamendua ziurtatzen al die Nafarroan horren premia duten pertsona guztiei? Baiezkoan, zer bitarteko aurrekusi ditu hori horrela izan dadin? Zer epetan? Osasun Departamentuak eskueran al ditu gaur egun bitarteko horiek?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa Negoziatzeko Batzordean parlamentu-talde guztietako ordezkariak parte hartzeari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Hitzarmen Ekonomikoa Negoziatzeko Ba-

tzordean parlamentu-talde guztietako ordezkariak parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urtarrilaren 27ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua prest al dago, hartu al du inolako erabakirik, Hitzarmen Ekonomikoa Negoziatzeko Batzordea parlamentu-talde guztien ordezkariekin osatuta egon dadin?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, ingurumen-inpaktuaren adierazpen berri bat egin beharra ekidite aldera ingurumen-inpaktuari buruzko proiektu bat ebazpen bidez balioztatzeari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ingurumen-inpaktuaren adierazpen berri bat egin beharra ekidite aldera ingurumen-inpaktuari buruzko proiektu bat ebazpen bidez balioztatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren asmoa da urtarrilaren 26an egitea –astelehenez– Nafarroako ubidearen lehen faseko zabalpenaren eremu ureztagarriko

lehen harria paratzeko ekitaldia Faltzesko El Molino alderdian.

Obra horri lege-estaldura emateko, Nafarroako Gobernuaren asmoa da jada iraungita dagoen ingurumen-inpaktuaren adierazpen bat balioztatzea, azaroaren 27ko 524E/2014 Ebazpenaren bidez.

Apirilaren 7ko 822/2009 Ebazpenaren bidez egindako ingurumen-inpaktuaren adierazpenak –Faltzesen eta Azkoien Faltzesko tradiziozko ureztaketa modernizatzearen aldekoa– sei urteko antzintasuna dauka, eta Arga ibaiko urekin beren ureztalurrak modernizatzeko aldera Faltzesko nekazariak egindako eskari bati erantzuten dio. Gogorarazi beharra dago proiektu hori Nafarroa 2012 Planean sartuta zegoela.

Horrenbestez, iraungita dago, eta orain egin nahi den proiektuarekin zerikusirik ez zeukan beste proiektu bati dagokio.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

• Gobernuaren ustez, zeharo bestelakoa den proiektu berri bat baliozta al daiteke ebazpen baten bidez legeak agintzen duen moduko ingurumen-inpaktuaren beste adierazpen bat egitea ekidinez?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eta Tafallako Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeari dagokionez Tafallako Udalak onetsitako ebazpenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eta Tafallako Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeari dagokionez Tafallako Udalak onetsitako ebazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan abenduan, Tafallako Udaleko talde guztiek –UPN, PSN, Iniciativa por Tafalla eta Bildu– aho batez onetsi zuten mozio bat, zeinaren bidez

Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen luzamendurik gabe egin zitzan Tafallarentzat eta eskualdearentzat funtsezkoak diren inbertsioak: Espezialitate Medikoen Zentroa eta Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzea.

Erabaki proposamenak honako hau zioen:

“1. Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu lehentasuna eman diezaien Espezialitate Medikoen Zentroa eta Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeke obrei, tafallarren borondatearen aurka une honetan egiten ari den interes publiko gutxiko edo batere gabeko beste inbertsio batzuen aldean.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu abian jar ditzan beharrezkoak diren ekonomia nahiz aurrekontu arloko prozedurak, hurrengo hilabeteotan luzamendurik gabe ekin ahal izateko Espezialitate Medikoen Zentroa eta Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeke obrei”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak ba al du erabaki horren berri?

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Tafallako Udalak aho batez onetsitako erabaki hori betetzeko?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea zergatik ez den kontusailik jaso 2013ko, 2014ko eta 2015eko aurrekontuetan 189. jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihebidia –NA-132–.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zergatik ez den kontusailik jaso 2013ko, 2014ko eta 2015eko aurrekontuetan 189. jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihebidia –NA-132–.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako 2013rako, 2014rako eta 2015erako aurrekontuen proiektuetan Nafarroako Gobernuak ez zuen kontusailik jaso 189. zenbakiko jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihebidia –NA-132–. Zergatik?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Museoak igandeetan bi solairu ixteko arrazoiei buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Museoak igandeetan bi solairu ixteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Museoak zergatik ixten ditu bi solairu igandeetan, nafarrek museoan doan ikus dezaketan egunean?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, C hepatitis daukaten gaixo nafarrei buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, C hepatitis daukaten gaixo nafarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 15ean, C hepatitis daukaten gaixo nafarren ordezkariak egiten ari diren itxialdiari buruzko galdera bati erantzunez –itxialdian eskatzen ari direna da irizpide medikoak aplikatzea, eta ez irizpide ekonomikoak, eragin zuzeneko antibiral berrietan oinarritutako tratamendua aplikatzeko estrategian–, Nafarroako Gobernuko eledun eta bigarren lehendakariorde Sánchez de Muniain jaunak ziurtatu zuen “sendagilearen aginduz tratamendu hori behar duten pertsona guztiei” ematen ari zaiela tratamendua Nafarroan, eta tratamendua ez dela ukatuko sekula ere arrazoi ekonomikoengatik, ez eta arrazoi politikoengatik emanen ere”

Galdera honen bidez honako informazio hau eskatzen dut:

– Nafarroako Foru Komunitatean tratamendu hori jaso duen edo/eta jasotzen ari diren gaixoen kopurua.

– Zenbat gaixok behar duten tratamendu hori, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialisten arabera.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentari María del Mar Lete Martínez andrea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik María del Mar Lete Martínez foru parlamentariak aurtengo urtarrilaren 20an aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Bildu-Nafarroa parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2014. urtean zehar foru parlamentariei emandako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15.4 artikulua ezartzen du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla foru parlamentari guztiek aurreko urtean jasotako ordainsariak.

Ikusirik 2014. urtean foru parlamentariei emandako ordainsari guztien zerrenda xehakatu,

Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egina, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitara dadin agintzea.

2. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2014. urtean ordaindutako ordainsariak					
Foru parlamentariak					
Izen-abizenak	Ordainsari finkoa	Beraratzearen truke jasotako ordainsariak	Kilometro- ordaina	Bestelako ordainketak	Guztira (eurotan)
Amezqueta Diaz, Koldo	55.601,14	-	-	-	55.601,14
Aranoa Astigarraga, Miren Julia	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Arraiza Zorzano, M ^a Victoria	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Ayerdi Olaizola, Manuel	49.422,10	-	581,56	-	50.003,66
Barea Aiestaran, Bikendi	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Beltran Villalba, Ana	51.481,78	-	490,42	-	51.972,20
Caballero Martínez, Javier	37.066,54	-	-	-	37.066,54
Caro Sádaba, Samuel	55.601,14	-	8.277,62	-	63.878,76
Casado Oliver, Ramón	49.422,10	-	8.434,17	-	57.856,27
Castillo Floristán, M ^a Victoria	49.422,10	-	4.953,80	-	54.375,90
Catalán Higuera, Alberto	67.620,70	-	-	-	67.620,70
Cerdán León, Santos	41.498,87	-	3.095,04	-	44.593,91
De Simón Caballero, Marisa	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Esparza Iriarte, Jesús	49.422,10	-	316,20	-	49.738,30
Esporrín Las Heras, Maite	55.601,14	-	-	-	55.601,14
Fdez. de Garayalde y Lazcano Sala, Asun	49.422,10	-	3.813,00	-	53.235,10
Felones Morrás, Román	7.413,31	-	631,47	-	8.044,78
Ferrer Cajal, M ^a del Carmen	49.422,10	-	4.953,80	-	54.375,90
Gainza Aznarez, Coro	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Galilea Arazuri, Gregorio	49.422,10	-	1.004,40	-	50.426,50
Garbayo Berdonces, Raquel	49.422,10	-	4.030,62	-	53.452,72
García Adanero, Carlos	-	39.214,08	-	-	39.214,08
Garijo Pérez, Esteban	37.066,54	-	5.126,16	-	42.192,70
Gómez Ortigosa, Jerónimo	49.422,10	-	3.320,10	-	52.742,20
González García, Carmen M ^a	49.422,10	-	5.387,80	-	54.809,90
Gorri Gil, Eva María	15.924,90	-	878,85	-	16.803,75
Jiménez Allí, Roberto	55.601,14	-	-	-	55.601,14
Jiménez Hervás, Txentxo	55.601,14	-	-	-	55.601,14
Lasa Gorraiz, Frantzisko Xabier	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Leuza García, Patxi	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Lizarbe Baztán, Juan José	37.066,54	-	-	-	37.066,54
Longás García, Juan Carlos	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Lorente Pérez, Francisco Javier	-	20.968,64	-	-	20.968,64
Martín de Marcos, Enrique	37.067,43	-	4.895,52	-	41.962,95
Mauleon Echeverria, Txema	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Nuin Moreno, Miguel	55.601,14	-	-	-	55.601,14
Ochoa Canela, M ^a Carmen (*)	49.422,10	-	-	714,78	50.136,88
Otamendi Claramunt, Amaya	-	19.607,04	620,00	-	20.227,04
Perez Irazabal, Nekane	49.422,10	-	5.383,15	-	54.805,25
Pérez Prados, Antonio	-	31.589,12	-	-	31.589,12
Ramírez Erro, Maiorga	49.422,10	-	2.690,80	-	52.112,90
Rapún León, José Antonio	49.422,10	-	6.100,80	-	55.522,90
Rascon Macías, Pedro	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Rubio Martínez, Víctor	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Ruiz Jaso, Bakartxo	55.601,14	-	-	-	55.601,14
Sanzberro Iturriria, Begoña	49.422,10	-	2.879,90	-	52.302,00
Sarasola Jaca, Aitziber	35.495,69	-	-	-	35.495,69
Sayas López, Sergio	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Villanueva Cruz, Eloy	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Zabaleta Zabaleta, Patxi	41.700,82	-	-	-	41.700,82
Zarranz Errea, Amaya	49.422,10	-	-	-	49.422,10
Bozal Bozal, Josefina (**)	-	-	-	5.627,33	5.627,33
2.231.852,00	111.378,88	77.865,18	6.342,11	2.427.438,17	

(*) Lokomozio-gastuengatikoko ordainketa.

(**) Gizarte babeserako laguntzak

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2015 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik urtarrilaren 14ko 1/2015 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea urtarrilaren 14ko 1/2015 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1/2015 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35.4. artikulua ezartzen du ezen, Foru Komunitateari dagozkion zerga bereziak ordainarazteko, unean-unean Estatuako lurraldean indarra duten oinarritzko printzipioak eta funtsezko eta formazko arau berak aplikatuko dituela hark. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena eta diru-sarrera egiteko ereduak, gutxienez ere lurralde

komuneko datu berak jasoko dituztenak, onesten ahalko ditu, eta likidazio aldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak, Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetatik funtsean desberdindu ez direnak, finkatzen ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten funtsezko eta formazko arau berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

Azaroaren 27ko 28/2014 Legeak hainbat aldaketa ekarri ditu fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedapen komunen; aipatu lege horrek beste lege hauek aldatu zituen: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea, Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskalaren alderdi fiskalak aldatzeari buruzko ekainaren 7ko 20/1991 Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea, eta ingurumen arloko fiskalitate neurri batzuk eta tributu eta finantza arloetako beste zenbait neurri ezartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legea. Berezi, hidrokarburuen (zehazki, gas naturalaren) gaineko zergaren sorrarazpenari dagokionez, baita fabrikazioaren gaineko aipatu zerga bereziak kudeatzeko arau orokorreari ere. Orobat, fabrikazioaren gaineko zerga berezietako arau-hausteen eta zehapenen erregulazioa hobetu da, arau-hauste arinak eta

larriak bereizi dira, eta gutxieneko zenbateko batzuk ezarri zehapen jakin batzuetarako.

Aldaketa horiek direla eta, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetzea erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikuluekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikulua arabera Nafarroako Foru Komunitateak Estatuko lurraldean indarra duten arau berdin-berdinak –bai funtsari bai formari dagokionez– aplikatu behar dituen alderdietarako.

Berariaz xedatzen da 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dituztela ondorioak 20/1992 Foru Legearen egindako aldaketek. Eta hori, oinarri hartuta arau horiek atzerako eraginkortasuna izaten ahaliko dutela, indarra har dezaten harmonizazioaren xedeko araubide erkidegoko arauekin batera, 14/2004 Foru Legearen 54.4 artikuluari jarraituz.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak proposaturik, eta 2015eko urtarrilaren 14an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DU:

Artikulu bakarra. Abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legetik aipatzen diren agindu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 7.13. artikulua:

“13. Artikulu honen aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, fabrika edo biltegi fiskaltzat hartzen diren instalazioetatik ateratzen den gas naturala hartaz hornitzeko kostubidezko kontratu baten barrenean gertatzen denean, fakturazio aldi bakoitzekeo gas naturalaren hornidurari dagokion prezioaren zatia eskatu daitekeenean sorraraziko da hidrokarburoen gaineko zerga. Aurrekoa ez da aplikatuko gas naturala beste fabrika, gordailu fiskal edo hartzaile erregistratu batera igortzen denean, ezta hornidura hodi finkoek ez beste baliabide batzuen bitartez egiten denean ere.

Artikulu honen 1. zenbakian aurreikusitakoa aplikatzeko, aurreko lerroaldean aipatzen diren gas naturalaren horniduraz beste batzuetarako, gehienez ere hirurogei egunez jarraian gas naturalez egindako hornidura guztia epe hori amaitu eta hurrengo hilabete naturaleko lehen egunean fabri-

ka edo biltegi fiskaletik atera dela ondorioztatu dezakete subjektu pasiboek”

Bi. 18. artikulua 1. eta 3. zenbakiak eta 5. zenbakiko c) letra:

“1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien subjektu pasiboek eta haiek ordaintzera behartuta dauden gainerakoek dagozkien tributu aitorten aurkeztu beharko dituzte, eta bidezko diren autoliquidazioak egin, baita bermeak aurkeztu ere, zerga arloko betebeharren erantzule direnez”

“3. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien subjektu pasiboek eta haiek ordaintzera behartuta dauden gainerakoek zerga-zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak ezartzen dituen prozedura, modua eta epeak betez”

“c) Produktu horien zirkulazioan eskatzen ahal diren baldintzak eta, bereziki, erkidegoko zirkulazioa eta lurralde barrenekoa babestu behar duten edozein dokumentutako erabilera baldintzak”

Hiru. 19. artikulua, 2., 3., 5. eta 6. zenbakiak. 7. zenbakia gehitu zaio artikuluari:

“2. Betiere, honako hauek zerga arloko arau-hauste larriak dira:

a) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak fabrikatzea, lege honetan eskatzen diren baldintza eta beharrezkoak bete gabe, ezta hura garatzeko erregelamenduan ematen diren xedapenak ere.

b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen zirkulazioa helburu komertzialekin lurralde barrenean, dokumentu administratibo elektronikoko batean babestuta egon behar denean baina erreferentziako kode administratiboa, horretarako agintari eskudunek esleitua, ez duenean.

c) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak edukitzea helburu komertzialekin, sorrarazitako zerga ordainduta duela, etendura araubidea aplikatu dela edo salbuespen kasua dela frogatu gabe”

“3. Aurreko zenbakiko a), b) eta c) letretan aipatu arau-hausteez dirutan izanen dute zehapena; hain zuzen ere, produktuen kopuruei legozkiekeen kuoten % 100, arau-haustea atzeman zen egunean indarra zuen tasa aplikatuta kalkulaturik; gutxienez ere, 1.200 euro.

Aurreko lerroaldean adierazitakoaren arabera dagokion zehapena % 25 igoko da, zerga arloko arau-haustea errepikatzen direnean. Inguruabar

hori gertatuzat emanen da arau-hausleak azken arau-haustea egin aurreko bi urtean ebazpen irmo baten bidez zehatua izan denean bide administratiboan, aurreko 2. zenbakian ezarritako debekueta-ko edozein urratzeagatik”

“5. Lurrean barrenean fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak helburu komertzialekin zirkulatzea tributu arloko arau-hauste arina da, baldin eta zirkulazio hori babesteko erregelamenduz ezarritako dokumentuen arabera dokumentuaren funtsezko datu errealak isildu badira edo oker eman, eta tributu arloko arau-hauste larria ez bada. Arau-hauste hori dirutan zehatuko da; hain zuzen ere, zirkulazioan diren produktuei legokiekeen kuotaren % 10; gutxienez ere, 600 euro.

Honako hauek zirkulazioko dokumentuen funtsezko datuak dira:

1.a. Zer salgai garraiatzen den eta zenbat zuzen identifikatzeko behar diren datuak.

2.a. Bidaltzailea, hartzailea edo produktuak zuzen identifikatzeko behar diren datuak, zirkulazio dokumentuaren zenbakia barne.

3.a. Zirkulaziokoko zigiluen kasuan, haien zenbakiak edo edukiera eta haien korrespondentzia ontziekin.

4.a. Bidalketa zein egunetan hasi zen”

“6. Zerga arloko arau-hauste arintzat joko da marka fiskalik edo ezagutzakorik ez dituzten edari alkoholduak edo tabako gaiak helburu komer-

tzialekin edukitzea, baldintza hori erregelamenduz eskatzen ahal denean, non ez zaion 2. zenbakian adierazitakoa aplikatzen jokabide horri. Arau-hauste hori honela zehatuko da:

a) 150 euroko isuna, helburu komertzialekin eta markak erakutsi gabe 1.000 zigarroko multzo bakoitza izateagatik; 600 euro, gutxienez ere, arau-hauste bakoitzeko.

b) 10 euroko isuna litro bakoitzeko, helburu komertzialekin eta markak erakutsi gabe, edari eratorriak izateagatik; 600 euro, gutxienez ere, arau-hauste bakoitzeko.

Aurreko a) eta b) letretan ezarritako zehapenak gorantz graduatuko dira, isunaren zenbatekoari % 25 gehituta, arau-hausteak errepikatuz gero. Arau-haustea errepikatuzat emanen da arau-hausleak azkena egin aurreko bi urtean ebazpen irmo baten bidez zehatua izan denean bide administratiboan zenbaki honetan ezarritako debekuak urratzeagatik”

“7. Zerga arloko arau-hauste arintzat joko da marka fiskal faltsuak, birsortuak edo erreperatuak edukitzea. Arau-hauste horri 10 euroko isun finkoa jarriko zaio marka fiskal faltsu, birsortu edo erreperatu bakoitzeko.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta aurreikusitako ondorioak izanen ditu.

